



Herritar agurgarria,

Jakingo duzunez, Urdulizko Udalak jai ekitaldiak eta Santa Marinako erromeria bertan behera utzi behar izan ditu aurten. Erabaki zaila izan da, baina ezinbestekoa, pairatzen ari garen osasun krisia dela eta.

Urduliztar batentzat, Santa Marina eguna oso berezia da eta horregatik, hain zuzen ere, Jai Batzordeak eta Udalak egun horretan urtero egiten dugun ekitaldietako bati eustea erabaki dugu: azken urtean (2019ko uztailaren 1etik 2020ko uztailaren 1era bitartean), **zuk bezala, umea izan duten emakumeei eskainitako Ohorezko Aurrekua.**

Ohi baino ekitaldi xumeagoa izango da, eta segurtasun arau berrietara egokitua, baina betiko espiritu berarekin ospatuko dugu. **Aurten Antsonekoa Plazan izango da, 19:00etan, Santa Marina egunean (uztailak 20, astelehena).**

Guretzat plazer handia litzateke zuk parte hartzea. Gurekin egon gura baduzu, **eskertuko genizuke zure presentzia uztailaren 17a baino lehen baieztatzea 946 76 20 61 telefonoaren edo [sarrera@urduliz.eus](mailto:sarrera@urduliz.eus) helbidearen bitartez.**

Parte hartuko duzun itxaropenez. Zure zain gaude.

Estimada vecina,

Como sabrás, este año el Ayuntamiento de Urduliz se ha visto obligado a suspender los actos festivos y la romería de Santa Marina. Ha sido una decisión difícil de tomar, pero inevitable, debido a la crisis sanitaria que estamos padeciendo.

Para un urduliztarra, la festividad de Santa Marina es algo muy especial y, precisamente por ese motivo, la Comisión de Fiestas y el Ayuntamiento hemos acordado mantener uno de los actos que celebramos cada año en esa fecha: **el Aurreku de Honor dedicado a las mujeres que, como tú, han dado a luz en el último año** (entre el 1 de julio de 2019 y el 1 de julio de 2020).

Será un acto más sencillo de lo habitual y adaptado a las nuevas normas de seguridad, pero que celebraremos con el mismo espíritu de siempre. Este año **tendrá lugar en la Plaza Antsonekoa, a las 19:00 horas, del día de Santa Marina (lunes 20 de julio).**

Para nosotros sería un placer contar con tu presencia. Si deseas acompañarnos, **te agradeceríamos que confirmaras tu presencia a través del teléfono 946 76 20 61 o el correo [sarrera@urduliz.eus](mailto:sarrera@urduliz.eus) antes del 17 de julio.**

Confío en poder contar con tu participación. Te esperamos.

Urduliz, 2020ko uztailaren 8a  
ALKATEAK  
BIZKAIA